

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) -Uzt 18, 2018

HAMABI SAGARDOGILEK PARTE HARTUKO DUTE AIZARNAZABALGO V. SAGARDO LEHIAKETAN

Larunbatean 18:30ean izango da aurtengo hitzordua, Atari Soro plazan. Sagardoarekin batera pintxoak dastatzeko aukera ere izango da, eta trikitilariak girotuko dute festa.



Aizarnazabalgo udaleko Ingurumen eta Nekazaritza sailak V. Sagardo lehiaketa antolatuta du larunbaterako. Lehiaketa 18:30ean hasiko da, Atari Soro plazan, eta sagardoa ez ezik, pintxoak dastatzeko aukera ere izango dute Aizarnazabalen elkartzen direnek. Trikitilariak ere izango dira txapelketako giroa berotzen.

Sagardo lehiaketaren bosgarren edizioan hamabi sagardogilek parte hartuko dute; Alorrenea (Astigarraga), Egiluze (Errenteria), Gaztanaga (Andoain), Akarregi (Hernani), Izeta (Aia), Petritegi (Astigarraga), Bereziartua (Astigarraga), Eula (Urnietia), Aburuza (Aduna), Añota (Azpeitia), Altzueta (Hernani) eta Urdaira (Usurbil). Iazko sagardo lehiaketa [Petritegik irabazi zuen](#).


[AIZARNAZABAL](#) [PINTXOAK](#) [SAGARDO LEHIAKETA](#) [SAGARDOA](#) [SAGARDOGILE](#) [TRIKITILARIAK](#) [UDALA](#)


AZKOITIKO HERRI MOIMENTUE: "PLAZAN GAZTA BAT ZOZKATU AHAL IZATEKO EZ DUGU BAIMEN BUROKRATIKORIK BEHAR"

Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Posta Elektronikoa: urolakosta@hitza.eus Perez Arregi plaza 1 behe, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358